

# ZESAROKRAZIAK ETA POTENTZIA HAUNDIAK

Hirugarren Munduan zesarismoa sistema bihurtu dela, esan liteke. Hau da: Parlamentu ahul batzuek doi-doi dute beste zereginik, Gobernuak ematen dizkien lanak egitea baino, Ejekutibo antzera. Aginpidea Gobernuaren kargu dago soil. Eta inoren kontrolik gabe, egon ere, Gobernuaren tresna eta lanabes hutsak dira Parlamentuak. Gobernua bera, aldiz, Armadak jartzen du. Edo eta muga herstherstuak ipini dira aldeazurretik. Gobernurik sortzeko.

Nolatan indartu da, hainbeste, sistema hori?

Militar Aginteari asko lagundu dio Hirugarren Munduko nazionalismoak. Hauetako Estatu askok independentzia lortu berria du. Beste gehienak ere biziki nazionalista dira, luzaroan haundiek umilatuak izan dira eta. Hori da arrazoi bat, Hirugarren Munduko zesarokrazientzat.

Beste arrazoi bat: Estatuak sarri ez dute barne batasunik. Parla-mentua ez da talde ttipi bakanen batzuen errepresentazio besterik. Estatu guziko erakunde seguru ia bakarra Armada izan ohi da. Bestela, aministrazioa oso lazoa da. Komunikabideak eskasak. Burjesia nahiz proletargoa, hiri guti batzuetako minoria apur bat besterik ez da, han hemen sakabanaturik Estatu osoa biltzen duen industria eta komertziorik apenas dago. Maiz nazionalitate dezberdinak bizi dira elkarrekin. Mendez mende elkarrekin guduan ibili diren tribuak elkarrekin bilduta daude, muga muga artifziazial batzuk mediante. Estatu nazioa baino lehenago sortu da. Batasun horixe sortzea izango da Militarren helburu bat.

iturburu nazionaletatik atera nahi izaten dituzte, behar dituzten ideak, beren demokraziaren (eta beren sozialismoaren) orijinaltasuna garbi gera dadin. Perun, inkaen tradizio sozialistatik. Libian, Koranetik. Kongon, tribu tradizio afrikanoetatik eta Indonesian berdintsu.

Neokolonialismoaren bildurra da beste arrazoi bortitz bat. Nazio hauk ez omen dute inoren mendean berriz erori nahi. Hirugarren demokrazia sistema bat entsciatzeko arrazoa hori ere, independentzia erakusteko.

Armadaok barnekaldera begira jarri dira, kanpokaldera ia eginkizunik ez bait dute. Nazioarteko haiziak "potentzia haundien" esku daude. Gainera, ofizial gahienak maila sozial apaletatik datoz. Peruko ofizialek adierazten zutenenez, lehen kanpoko etsaietatik defendatzen zuen Armadak aberria; orain barruko etsaiei gerra egin beharra dago.

Bai demokrazia burjesek eta bai Herri Demokraziek, oro har, hain prestijio guti dute, hirugarren bide bat probatzea ia nahitaezkoa gertazen bait da. Eta Potentzia Haundiak, lehenengo zeuden, baina orain ez dute horixe besterik nahi.

Militar Demokraziak ez dira denak berdinak. Baina ezaugarri komun batzuk sinala litezke.

Denak dira "desarroilistak". Beren herriak aguro eta presaka industrialdu nahi dituzte. Herri Demokrazietako metodo zentralista.

ingusikoiak hartzen dituzte sarri, errazena horixe delako. Eta guztiaren gaintetik "ordua" oso ondo zaintzen dute.

Militar guztiok nolarebait militar organizazioaren miresle itsuak dira eta nazio guzia koartel antzera organizatu nahi luteke. Pluralismoa funtsean desordenu hutsa eta indarrak alferrik galtzea iruditzen zaie. Nazio guztiari bat egin arazi nahi liokete, brigada diziplinatu herstu baten antzera. Obedientzia besterik ez dute ezagutzen. Eztabaidarik ez dago. Eztabaida ez da lana. Produzioak diziplina eskatzen du.

Gobernatzeak, halere, lanak ematen ditu. Hiriak ez baitira koartel eta ez zibilak soldadu. Bestalde Militarrek agintzea gaizki ikusita dago. Horregatik Militarrek askotan uzten dituzte Gobernu lanak zibilen batzuen eskuetan, erantzukizuna beti ere berek dutela, bas-tidoreeen atzean. Ohargarri da, nolako zibilak hautatu ohi dituzten karguduntarako: teknokratak. Zesarokraziotan, hortakoz, Militarrek agintzen dute eta tekonokrak gobernaten. Sekula ez zaie Alderdiei Gobernu lanik enkargatzen.

Militarrok, beren erara, kolektibista dira. Interes pribatu naiz indibidualismo era guzien etsai gorrak. Era berean, nazioz gaindiko edo nazioarteko harremanik duen inorekin ez dira fidatzen. Elizarik izan ala Alderdirik nahiz beste edozein gizarte sailik edo erakunderik. Halako "Estatu sozialistetan" ere Alderdi sozialistak eta komunistak persegiturik daude gahienetan. Arras logiko da hori.

Europako "ideologiez" iseka egitea da beste ezaugarri bat. Beren

# Konkordato berria eta euskal Apezpikuen Batzarrea

Joan den uztailaren 15ean, Aita Saindu Paulo VI.ak Don Juan Carlos erregearen mandatari baten bisita izan zuen, ustekabean. Garrantziko mezua zeraman erregearen mandatariak, gerora jakin denez: apezpikuak proposatzeko "eskubidea" bertan behera uzteko asmoa agertu nahi zion Erregeak Aita Sainduari.

Ustekabeko erabakia erregearena, bai Erromako Aulkiarentzat, bai espainol Gobernu berarentzat ere. Esan beharrik ez, Paulo VI.ak atsegin handiz hartu zuela bisitaria.

Berez ere garrantzizkoa zelarik, are gertatu zen albistea beste alde hontatik harturik: 1953ko Konkordatoa nola berritu elkarriketarako bide urraketa gertatzen zelako. Izan ere, II. Batikano Kontzilioaz geroztik, guztien ahotan eta burutan zebilen puntua zen hori: 1.953ko Konkordatoa aldatu beharrean zela alegia. Hortarako, ordea, ezinbestezko baldintza aipatu "eskubide" hori (apezpikuak proposatzekoa alegia) uztea zen Erromako Aulkiaren aldetik. Ez zuen onartu nahi horrelakorik espainol gobernuak. Eta Juan Carlosek aipatu egun eta mandatari horren bidez, urrats horixe du egun.

Urrats handia, beraz, konkordato arkaiko hori azpikoz gora botatzeko. Hain zuzen ere, jadanik espainol Gobernuaren eta Erromako Aulkiaren esku dagoke arazo horri gorputz bat ematea. Eta lerrok idazten ari naizenerako egina dute akordio bat aipatu partaide biek: batek apezpikuak proposatzeko "eskubidea" bazterreratu utziz, eta besteak (Erromako Aulkiak) Espainiako apaizen foru pribilegioa utziz (foru pribilegio horren arabera ez zitekeen juzga apaizik apezpikuaren baimenik gabe, apaizek gartzelan gartzela be-

rezia behar zuten, Zamorakoa bezalako gartzela pribilegiatua esaterako, e.a.).

Bistan da puntu biok mantentzeko jarraitzeko arrazoinik ez dela: ez du gobernu batek zertan buruntzalia sartu apezpikuak izendatzeko; ez du batek, apaiz delako, beste herritar batek ez bezalako pribilegiarik izateko arrazoinik.

Nornahik sumatzen du, noski, puntu biok aldatzeak beste mailarena dakarkeela. Izan ere, aldaketa horiek, nola gizarteari buruzko ikusmodua, hala gizarte eta Eliza arteko harremanetaz, berriztapen handia egin dela agertzen bait dute: apezpikuak izendatzeko zerikusirik ez duen gizarte moldea ez da orain dela hogeitakoa, apaizak edozein herritarren mailakotzat jotzen dituen gizarte moldea ez da gure gurasoena...

Baina, puntu konkretuago batetara gatozlarik, apezpikuak proposatzeko "eskubideari" uzten dior Gobernuak, ez du ematen, arrazoin handirik duenik eliz diozesien mugak zer-nolakoak behar behar duten izan esateko, ez eta diozesien arteko harremanak nola moldatu behar diren.

Easan nahi da, diozesia zein lurraldetara mugatu ala zabaldu, Gobernuak ez, baina elizak erabaki beharko duela; ez duela balio "probintzia zibila berdin diozesia" zelako kriterioak. Horrez gero, orain ikusiko da zer-nolako kriterioak dituzten gure apezpikuek euskal diozesien antolaketa burutzeko. Orain bazuketan (beren us-tez bederen) arrazoinik, Iruinea alde batera eta Bilbo beste batera jarrita ikusirik ere lasai gelditzeko. Aurrerantzean ez du ematen orain arteko arrazoinetak balio dakiekeenik: apezpikuak izendatzea eliz hierarkiaren gain geratzen bada, are arrazoizkoagoa izanen da diozesien banaketa ere haien esku gelditzea.

Hor ikusiko da: PCE-k bezala. Nafarroa Euskal Herritik kanpora uzten duten, Errioxari buruz zein postura hartzen duten, Ipar eta Hego Euskal Herri arteko harremanak zer-nola konpontzen dituzten...

Egiaz eta zinez, jakin minez naukazue, eta gauzkazue: zeren bat eta bi baino gehiago bait gara arazo hortaz aspaldidanik kezkatu-rik garenok. Lekuko hainbat eta hainbat izkribu. Azkenekoa, zeu-**on, Euskal Herri** erdiko apezpikuor inguruan den erakunde edo delakoaren eskabidea **duzue**.

## AMUNSA

### ZESAROKRAZIAK...

iturburu nazionaletatik atera nahi izaten dituzte, behar dituzten ideiak beren demokraziaren (eta beren sozialismoaren) orijinaltasuna garbi gera dadin. Perun, Inkaen tradizio sozialistatik. Libian, Koranetik. Kongon, tribu tradizio afrikanotatik eta Indonesian berditu.

**Hori** dena ez da harrigarria. **Eta**, guretzat, batez ere mundua nola dabilen ikusteko da interesgarria hori.

Baina beste hau are inportanteago da guretzat: Potentzia Haundiek nahiago dituzte halakoxe Gobernuak, solaskide eta partzuer seguruagoak baitira Gobernu demokratiko aldakorrek baino. Munduaren partizioa egina dagoenez, sorpresarik ez da nahi.

Potentzia Haundientzat orain gerta litekeen gauzarik okerrera, mundu honek bere "ekilibrioa" galtzea litzateke: gerra atomiko baten arriskuarekin eta hori dena. Eta Potentzia Haundiek inbibilismoa nahi dute. Real-politik. Guk, derrigor gauzak aldatu behar ditugunez, geure xuloa bilatu beharko dugu, etorkizuna hersten digun hormatzar hortan. Xuloa bilatu. Edo xuloa egin.

JOXE AZURMENDI